

**Espediente mota:** Administrazio kontratazioa  
**Kontratua:** Obra kontratua, prozedura negoziatua publizitateagaz.  
**Espediente zenbakia:** 6.2.2./5-11

**OBRA KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN**  
**ORRIAK**  
**PUBLIZITATEAGAZKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKO ESLEIPENA**

**I.- KONTRATUAREN EDUKINA**

**1. KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratuaren xedea hau da: Aritxatzubidea kalearen (Zubiaur tar Kepa kaletik Bizkaiko Jaurerria kalera) urbanizazio obrak.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

**2. OBRAK BURUTZEKO EPEA**

Kontratu honen helburu diren obrak burutzeko epea hau da: 4 HILABETE  
Kontratua izenpetu eta hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen epe hori.

Obrak epe horretan amaitzen ez badira, esleipendunak berandutzeagatik erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

**3. KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratuaren prezioa 304.025,38 €-koa da, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 54.724,57 € da. Lehiatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete.

Lehiatzaileek diru kopuru hori hobetu daikee, baina beti ere, kontuan hartuko da lehiatzaileek hobetutako prezio horretan Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) kanpo dagoela. Nolanahi ere, lehiatzaileak banatuta zehaztu beharko du kontratuaren prezioa eta BEZari dagokion zenbatekoa.

**4. FINANTZATZEA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

## **5. NOLA ORDAINDU**

Obra burutuak aldizka ordainduko dira, egiaztagiriak egindakoan. Obren zuzendariak egingo ditu egiaztagiri horiek.

## **6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA**

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

Prezioen berraztertzea onartzen bada, hori Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 78 – 82. artikuluen arabera egingo da. Aplikatuko den berraztertze-formula zehaztu behar da.

## **7. BERMEAK**

Lehiatzaile guztien proposamenek kontratua esleitu arte iraungo dutela eta esleipendunaren proposamenak kontratua formalizatu arte iraungo duela ziurtatzeko eskatzen da behin-behineko bermea. Izan ere, berme hori inkautatu egingo da baldin eta kontratua esleitu aurretik enpresaren batek bere proposamena bertan behera uzten badu bidezko arrazoirik gabe, edo kontratua esleitu eta gero esleipendunak behin betiko bermerik jartzen ez badu, edo beraren erruagatik kontratua epean formalizatzerik ez badago. Horrelakoetan bermea betearaziko da.

Hori dela eta, enpresa baten eskaintzari ausartegia iritzita enpresa horri informazioa eskatzen bazaio eta berak erantzuten ez badu, proposamena bidezko arrazoirik gabe bertan behera utzi duela uste izango da, eta era berean, lehiatzailearen batek proposamen akastuna edo oinarririk gabekoa aurkeztu duela eta ezin lezakeela bete aitortzen badu, gauza bera uste izango da.

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako beharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar du. Berme horren zenbatekoa esleipenaren zenbatekoaren edo, egoki denean, lehiaketaren oinarrizko aurrekontuaren edo esleipenaren zenbatekoaren %5 izango da.

Behin-betiko bermea jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, esleipena proposamena jakinarazo eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 84.artikuluaz azaltzen direnetatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude.

## **8. KONTRATUA BURUTZEA**

Zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra-kontratuaren burutzapena, eta kontratua formalizatzen denetik gehienez hilabeteko epean izan beharko da.

Lanak kontratuaren oinarria diren administrazio baldintza zehatzen agirian eta proiektuan ezarritako baldintzak zorrotz beteta egingo dira, baita administrazioak lanotarako izendatutako zuzendari fakultatiboak eta, hala badagokio, kontratuaren arduradunak, agirion interpretazio teknikoaren arabera, kontratistari emaniko jarraibideen arabera ere.

Jarraibide horiek ahoz emandakoak direnean idatziz berretsi beharko dira ahalik eta arinen, parteentzat lotesleak izan daitezzen.

Lanak egitean eta berme epea bete arte, kontratista eraikuntzan ager litezkeen akatsen erantzulea izango da.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira: a) agiri honetan ezarritako baldintzak; b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta c) Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua burutzeko obrek behar bezala aurrera egitea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

## **9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK**

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienezaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Bereziki, Bermeoko Udalak onartutako Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren helburuak bete beharko ditu (I eranskina).

Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Lanak egiten jardungo dauan enpreseak, hau da, esleipendunak, Udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez-aurreko harremon, txosten eta azalpen guziak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskeraz burutuko beharko dauz. Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

Datu Pertsonalen Babeserako betekizunak zehatz mehatz betetzea: Enpresa esleituak, proiektuaren gauzapenerako Bermeoko Udalak bideratutako informazio eta dokumentazio guztia konfidentzialtasun osoz erabili beharko du, beti ere, abenduaren 13ko Datu pertsonalen babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoa eta Fitxategi Automatizatueta bildutako datu pertsonalen Segurtasun Neurriari buruzko ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak ezarritakoak kontutan hartuz. Kontratu honen ezaugarriak direla-eta, enpresa esleipendunak Udalean lan egingo duen langilearen bitartez, Datuen Tratamenduen arduradun izaera bere gain hartzen du eta nahitaez bete behar dituen legezko betebeharez, lanbide betebeharrak eta betebeharrak deontologikoez gain, ezinbestean bete beharko du kontratu honek arautzen dituen atzipenaren menpeko datu pertsonalekiko lanbide sekretua; eta Toki erakundearekin

dauzkan harremanak amaitu ostean ere, lanbide sekretua gorde beharrak bere horretan iraungo du. Tratamenduaren arduradunaren eginkizuna izango da behar diren neurri teknikoak eta antolaketako neurriak ezartzea, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek aldatu edo galdu ez daitezen eta baimenik gabeko tratamendurik edo atzipenik egon ez daiten.

Honen guztiaren berme legez, II. eranskin legez agertzen dan konpromisoa sinatu beharko da.

Tratamenduaren arduradunak ez baditu betetzen kontratu honetako baldintzak eta, bereziki behean adierazitakoak gertatzen badira, toki entitatea salbuetsita geratuko da ez betetze horien ondorioz sor daitezkeen erantzukizunetatik:

- Tratamenduaren arduradunak datu pertsonak erabiltzen baditu alde biek kontratu honen bidez hitzartu eta adostu ez duten bestelako helburu baterako.
- Tratamenduaren arduradunak hausten badu datuekiko sekretu gorde beharra edo datuak hirugarren pertsonari ez komunikatzeko betebeharra.
- Tratamenduaren arduradunak datuak erabiltzen baditu kontratu honetan jasotako edozein baldintza hautsiz.

Goian adierazitako arau haustek egiteagatik edo akordio honetako beste edozein baldintza ez betetzeagatik, tratamenduaren arduraduna tratamendu kontrolatzailetzat joko da, eta erantzun beharko dizkie berak egindako arau hausteei eta interesdunek Datuak Babesteko Euskal bulegoan aurkeztu daikiezan erreklamazioei, bai eta ukituei onartzen jakezan kalte-ordainei ere, euren ondasunetan edo eskubideetan jasandako kalteak direla eta erantzukizun egintzez baliatzen badira.

Kontratu harremana legez bukatu ondoren, tratamenduaren arduradunak erabilitako datu pertsonalak suntsitu egin beharko dira edo tratamendu kontrolatzaileari itzuli behako jakoz, tratamenduan erabilitako datu pertsonalak dituen edozein euskarri edo dokumenturekin batera.

## **10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE**

Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

## **11. KONTRATUA ALDATZEA**

Kontratistarentzat nahitaezkoak izango dira, 202. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, obra unitateetan igoyerak, murrizketak edo ezabapenak edo fabrika klase baten ordeztu beste bat jartzea eragiten duten obra kontratuko aldaketak, kontratuan aurreikusitakoetako bat denean, baldin eta 220. artikuluko e letran aurreikusitako balizkoetan ez badago. Obrak ezabatuz edo murriztuz gero, kontratistak ez du kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango.

Aldaketek proiektuak aurreikusi gabeko obra-unitateak sartzeari eragiten badute edo horien ezaugarriak guztiz bestelakoak badira, horien ezarpen prezioak administrazioak ezarriko ditu, kontratistari gutxienez hiru laneguneko epean entzunaldia eskaini eta gero. Kontratistak ez balitu ezarritako prezioak onartuko kontratazio organoak beste enpresaburu batekin kontratatu ahal izango ditu ezarritako prezio berberetan, edo berak egin zuzenean. Beste enpresaburu batekin kontratazioa egin ahal izango da publizitate gabeko prozedura negoziatu bidez, betiere haren zenbatekoak ez badu kontratuaren hasierako prezioa % 20 edo gehiago gainditzen.

Obraren zuzendari fakultatiboak uste badu proiektuan aldaketa bat egitea beharrezkoa dela, dagokion espedientea hasteko baimena eskatuko dio kontratazio organoari, eta premiazko izaeraz egingo da honako jarduera hauekin:

- a. Proiektuaren aldaketa idatzi eta horren onarpen teknikoa.
- b. Kontratistari entzunaldia, gutxienez hiru egunetan.
- c. Kontratazio organoak espedientea onartzea, baita beharrezko gastu osagarriak ere.

Hala ere, aurreiazko onarpenik gabeko aldaketak egin ahal izango dira horiek proiektua neurtzerakoan aurreikusitako unitateen kopurua aldatzea direnean, betiere kontratuaren hasierako prezioan % 10eko baino gastu handiagoa eragiten ez badute.

Aldaketa baten tramitazioak eragiten badu obraren exekuzioaren parte bat edo guztia etetea eta horrek interes publikoan kalte handiak eragiten baditu, ministroak, Estatuko Administrazio Orokorra bada, edo haren erakunde autonomoak, Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak edo zerbitzu komunak eta Estatuko gainerako erakunde publikoak badira, obrak behin-behineko jarraitzea erabaki lezake zuzendaritza fakultatiboak egindako proposamen teknikoan aurreikusitako moduan, betiere aurreikusitako gehienezko zenbatekoa ez bada kontratuaren hasierako prezioa baino % 20 garestiagoa, eta finantzatzeko kreditu egokia eta behar bestekoa badago.

Tramitatu beharreko aldaketa espedientean ekintza hauek sartu beharko dira eskusiboki:

- a. Obraren zuzendari fakultatiboak egindako proposamen tekniko arrazoitua. Bertan aldaketaren gutxi gorabeherako zenbatekoa eta egin beharreko obraren oinarriko deskripzioa jaso beharko dira.
- b. Kontratistari entzunaldia.
- c. Kontratazio organoaren adostasuna.
- d. Kreditua egon dagoen ziurtagiria.

Sei hilabeteko epean proiektua teknikoki onartuta egon beharko da, eta zortzi hilabeteko epean aldatutakoaren espedientea.

Zortzi hilabeteko epe horretan, lehentasunez, aurreikusitako obra unitateak egingo dira, azkenean eta behin betiko ezkutuan geratuko ez diren parteak. Obrak behin-behineko hasteko ministroaren baimenak, Estatuko Administrazio Orokorraren, haren erakunde autonomoen eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileen eta zerbitzu komunaren esparruan, gastua onartu beharra eragingo du, gastuaren espedientea onartzerakoan egin beharreko egokitzeen kalterik gabe.

## **12. OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA**

Obrak amaitutakoan harrera egiteko eta 205.2 artikuluan ezarritako eraginetarako, lege honetako 41. artikulua aipatzen duen kontratuko arduraduna etorriko da, izendatuta balego, edo hura ordezkatzeko duen administrazioak izendatutako fakultatibo bat, obren zuzendaritzaren ardura duen fakultatiboa eta kontratista bere fakultatiboarekin batera, nahi izanez gero.

Harrera egiten denetik aurrera hiru hilabeteko epean, egindako obren azken ziurtagiria onartu beharko du kontratazio organoak. Ziurtagiri hori kontratuaren likidazioaren kontura ordainduko zaio kontratistari.

Obrak egoera onean eta aurreikusitako preskripzioen arabera eginda badaude, administrazio kontratatzaileak izendatutako funtzionario teknikoak, haren ordezkari legez, hartutzat emango ditu, eta dagokion akta jasoko du. Orduan hasiko da berme epea.

Obrak ez daudenean hartzeko moduan, egoera hori jaso egingo da aktan, eta zuzendariak antzemandako akatsak zehaztu eta eman beharreko aginduak emango ditu, akatsok zuzentzeko epe eta guzti. Epe hori igarota kontratistak ez baditu konpondu, beste epe bat eman ahal izango zaio, luzaezina, edo kontratua bertan behera utzi.

Berme epea administrazio baldintza zehatzen orrietan ezarriko da, obraren izaera eta konplexutasuna kontuan hartuta, eta ezin izango da urtebete baino gutxiagokoa izan kasu berezietan ez bada.

Berme epea amaitu baino aurreko hamabost egunen barruan, obrako zuzendari fakultatiboak, ofizioz edo kontratistak eskatuta, obren egoerari buruzko txosten bat idatziko du. Txostena aldekoa izanez gero, kontratista erantzukizun guztietatik salbu geratuko da, hurrengo artikuluan zehaztutakotik izan ezik. Beraz, bermea itzuli edo ezabatuko da, kontratua likidatuko da eta, hala badagokio, zorretan dauden azken obligazioak ordainduko dira. Ordainketa hori hirurogei eguneko epean egin beharko da. Txostena ez balitz aldekoa eta antzemandako akatsak obra exekuzioko gabezien ondoriozkoak balira eta ez eraikitakoaren erabileraren ondoriozkoak, berme epearen barruan, eraikitakoa behar bezala konpontzeko eman beharreko aginduak emango lizkioke zuzendari fakultatiboak kontratistari. Agindu horiek betetzeko epe bat izango luke kontratistak, eta epe horretan obren kontserbazioaren arduradun izaten jarraituko luke, berme epea luzatzeagatik inolako zenbatekorik jasotzeko eskubiderik gabe.

Hala ere, iraupenak amaiera praktikorik ez daukan obretan, hala nola, emaitzarik eman ez duten zundaketetan eta prospekzioetan, edo izaeraren ondorioz kontserbazio hutsezko lanak baino gehiago behar dituztenetan, hala nola, dragatzeetan, ez da berme eperik eskatuko.

Harrera partziala egin ahal izango zaie epeka egin daitezkeen eta erabilera publikorako izango diren parteei, kontratuan ezarritakoaren arabera.

Kontratazio organoak, espedientean behar bezala arrazoitutako interes publikoko salbuespenezko arrazoiengatik beti, obren benetako okupazioa edo erabilera publikorako zerbitzuan ipintzea erabakiz gero, harrera ekintza formala egin barik badago ere, zirkunstantzia horiek egon daudenetik aurrera obren harrera ekintzaren eragin eta ondorio berberak izango ditu, eta arauz ezarritako termino berberetan.

Nolanahi ere, esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, esleipendunak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obren harrera ekitalditik aurrera zenbatzen hasita.

Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

### **13. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU**

#### **A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA**

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1000 euroko (196. Artikulua).

Atzerapenagatik zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organok aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

#### **B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA**

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo baldintza administratibo berezien orrietan aipatzen diren zigorrak ezartzea .

### **14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOIAK**

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 206 eta 220. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

### **15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK**

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren

Kontratuen 30/2007 Legean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## **II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA**

### **16. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA**

Kontratu honen esleipena publizitateagazko prozedura negoziatu bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 147-152. artikuluetan bat etorriz.

Kontratazio prozedura honetan fase bi egongo dira:

- a) Lehenengo fasean, lizitazioan parte hartzeko hautagaiak aukeratuko dira, hautagai horiek parte hartzeko eskabidea egin eta gero. Lehenengo hautaketa hori egiteko, hautagaien kaudimena baloratuko da. Kaudimena VII eta VIII eranskinetan xedatutakoren bitartez kreditatuko da.
- b) Bigarren fasean kontratuaren esleipenduna aukeratuko da, esleipen irizpide honeetan oinarrituta:
  - Proposamen ekonomikoa: gehienez 40 puntu  
Ez dira lizitazio oinarritik goragoko eskaintzarik onartuko.  
Gainerako eskaintzak holan puntuatuko dira: Lizitazio oinarria 0 punturekin puntuatuko da. Gainera eskaintzak 2 puntu jasoko dabe %1eko baja bakoitzeko.
  - Segurtasun eta kalidadea: gehienez 20 puntu  
Kudeaketa Sistemen inguruko ziurtagiriak izatea baloratuko da. Ziurtagiri bakoitza 5 punturekin puntuatuko da.
  - Obrearen metodologia, obraren ezagutza eta hobekuntzak: gehienez 20 puntu
    - Lizitzaileek exekutatu dan obraen garapena azaltzen dauan memoria bat aurkeztu beharko dabe, obraen metodologia eta planning-a zehaztuz: 5 puntu
    - Lizitzaileek obraen ezagutza eta bertako zerbitzuen ezagutza erakutsi beharko dabe: aurretik existitzen diran zerbitzuen eta bertan dagozan exekuzino unidade desberdinek emon behar dabezan zerbitzuen eta obraekin exekutatu diran zerbitzu barrien interkonexioa: 10 puntu
    - Aurkezten diran hobekuntzak baloratuko dira. Hobekuntza honeek udalaren lehentasunen arabera baloratuko dira: 5 puntu
  - Obra egiteko epea: gehienez 20 puntu  
Ez dira bost aste baino gehiagoko beherapenak onartuko.  
Bajutzen dan aste bakoitza 4 punturekin puntuatuko da.

**Gehienezko puntuazioa: 100 puntu**



Lanak egiten jardungo dauan enpreseak, Udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez aurreko harremon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Era berean, Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskeiniko.

## 17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek lizitazioan parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen tekniko eta ekonomiko frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 49. artikuluan adierazitako arrazoia direla eta.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoia, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lehiatzaileen jardura nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

## 18. LIZITAZIOAN PARTE HARTZEKO ESKARIA AURKEZTEA

Kontratazio honen baldintza plegu tekniko-administratiboak, Bermeoko Udalaren web orrialdean eta honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango dira:

LEKUA: BERH@Z BULEGOA. Ertzilla kalea 6-8 48370 BERMEO  
ORDUAK: Astelehenetik barikura 08:30-14:30. Martitzenetan eta eguenetan 16:30 – 19:00. Larunbatetan 10:00 – 13:00. \*Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

***Lizitazioan parte hartzeko proposamenak*** ondorengo lekuan, ordutegian eta epean aurkeztu ahal izango dira:

LEKUA: BERH@Z BULEGOA. Ertzilla kalea 6-8 48370 BERMEO  
ORDUAK: Astelehenetik barikura 08:30-14:30. Martitzenetan eta eguenetan 16:30 – 19:00. Larunbatetan 10:00 – 13:00. \*Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

EPEA: 10 egunetan iragarkia publikatzen denetik.

Lizitazioan parte hartzeko, lehiatzaileek kartazal bakarria aurkeztu beharko dabe. Horretan testu hau idatziko da: “ARITXATZUBIDEA KALEA URBANIZATZEKO OBRAK XEDE DAUKAN KONTRATAZIOAREN LIZITAZIOAN PARTE HARTZEKO ESKARIA”. Kartazal horretan ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

b) Lehiatzailea persona juridikoa izanez gero:

- Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.
- Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
- Arduradunaren NAN.

c) Kontratatzeko debekurik ez duela aitortzea (IV. Eranskina).

d) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak.

e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

f) Indarreko empresa-sailkapenaren ziurtagiria: Lehiatzailea G taldeko 4 azpitaldean e kategorian, E taldeko 1 azpitaldean e kategorian eta I taldeko 6 azpitaldean e kategorian sailkatu dagoela egiaztatzen dauan agiria. (G4e, E1e eta I6e)

\*Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroan izena eman badago, a) b) c) eta d) ataletan aipatutako dokumentazioaren ordezkariak aurkeztu beharko da:

- Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoen indarreko egiaztapena.
- Egiaztapen jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diren eta indarrean dauden zintzuzko aitortpena (VI. Eranskina).

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, behin-betiko esleipena egin orduko, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

## **19. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

Lehenengo fasean hautatuak izan direnei, gonbitea bidaliko zaie gonbitean bertan adierazitako epean proposamenak aurkez ditzaten (15 egun gitxienez).

Aukeratutako hautagaiek kartazal bakarra aurkeztu beharko dute. Kartazalean ondoko testua idatziko da: “ARITXATZUBIDEA KALEA URBANIZATZEKO OBRAK KONTRATATZEKO BIGARREN FASEAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”. Kartazal horretan ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

- a) **Proposamen ekonomikoa**, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren Pleguaren III. **Eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita.
- b) Dokumentazio Teknikoa: Eskaintzaileek orrialdeak zenbatuta dituen dosier bat aurkeztu behar izango dute, dagokion izenburuarekin. Hala, banan-banan jaso beharko dira lehiaketa esleitzeko baloratuko diren irizpideei buruzko alderdi oro.
- c) Ez dira onartuko proposamen hauek:
  - Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
  - Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
  - Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
  - Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.
  - Pleguaren I. Eranskin gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
  - Eskaintzailearentzat bideraezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.
- d) Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.
- e) Eskaintza bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Pleguan baimena ematen bada bakarrik, soluzio aldakorak izan ahalko ditu; hortaz, eskaintza ekonomikoak ere ezberdinak izan ahalko dira.

## 20. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako proposamenak, jendaurrean irekiko dira Kontratazio Mahaiak erabakitako egunean. Telefonoz edo faxez emongo jake aurretiaz horren barri lehiatzaileei.

Ondoren, eta, hala badagokio, egoki diran txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio mahaiak esleipena egin behar dauan Kontratazio Organoari pasako deuto esleipen proposamena.

## 21. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Esleipena gehienez bi hilabeteko epean egingo da proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita. Erabakia lizitatzaleei jakinaraziko zaie. Horrez gain, web orrialdean edo BAOn publikatuko da.

Esleipena egin aurretik, esleipen proposamenean agertzen dan hurrenkerea jarraituz, zerrendan lehenengo agertzen dan parte hartzaileari, errekerimendua egingo jako, hau jaso eta 10 eguneko epean, honako hauek egiteko:

a) Agiriak aurkeztu edo konpultsatu.

b) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.

b) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu.

Epe horretan egingo ez baleuz, uko egiten dauala ulertuko da eta zerrendako hurrengokoari deituko jako aitaturako horreek egin daizan. Uko egiten dauanaren, behin behineko bermea Udalaren esku geratuko da.

Behin horreek eginda, proposatuaren aldeko esleipena erabagiko da eta, esleipena jakinarazo eta 15 laneguneko epearen barruan, honeek burutu beharko dauz:

a) Administrazio honen bulegoetara etorri, proiektuaren zuinketa egiaztatze eta zuinketa-akta izenpetze.

b) Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipena, parte hartzaileei jakinarazoteaz gain, web orrialdean publikatuko da eta, kontratuaren prezioa 100.000 euro baino handiagoa izango balitz, BAOn ere publikatu beharko da.

Obrak amaitutakoan harrera egiteko eta 205.2 artikuluan ezarritako eraginetarako, lege honetako 41. artikulua aipatzen duen kontratuko arduraduna etorriko da, izendatuta balego, edo hura ordezkatzeko duen administrazioak izendatutako fakultatibo bat, obren zuzendaritzaren ardura duen fakultatiboa eta kontratista bere fakultatiboarekin batera, nahi izanez gero.

Harrera egiten denetik aurrera hiru hilabeteko epean, egindako obren azken ziurtagiria onartu beharko du kontratazio organoak. Ziurtagiri hori kontratuaren likidazioaren kontura ordainduko zaio kontratistari.

Obrak egoera onean eta aurreikusitako preskripzioen arabera eginda badaude, administrazio kontratatzaileak izendatutako funtzionario teknikoak, haren ordezkari legez, hartutzat emango ditu, eta dagokion akta jasoko du. Orduan hasiko da berme epea.

Obrak ez daudenean hartzeko moduan, egoera hori jaso egingo da aktan, eta zuzendariak antzemandako akatsak zehaztu eta eman beharreko aginduak emango ditu, akatsok zuzentzeko epe eta guzti. Epe hori igarota kontratistak ez baditu konpondu, beste epe bat eman ahal izango zaio, luzaezina, edo kontratua bertan behera utzi.

Berme epea administrazio baldintza zehatzen orrietan ezarriko da, obraren izaera eta konplexutasuna kontuan hartuta, eta ezin izango da urtebete baino gutxiagokoa izan kasu berezietan ez bada.

Berme epea amaitu baino aurreko hamabost egunen barruan, obrako zuzendari fakultatiboak, ofizioz edo kontratistak eskatuta, obraren egoerari buruzko txosten bat idatziko du. Txostena aldekoa izanez gero, kontratista erantzukizun guztietatik salbu geratuko da, hurrengo artikuluan zehaztutakotik izan ezik. Beraz, bermea itzuli edo ezabatuko da, kontratua likidatuko da eta, hala badagokio, zorretan dauden azken obligazioak ordainduko dira. Ordainketa hori hirurogei eguneko epean egin beharko da. Txostena ez balitz aldekoa eta antzemandako akatsak obra exekuzioko gabezien ondoriozkoak balira eta ez eraikitakoaren erabileraren ondoriozkoak, berme epearen barruan, eraikitakoa behar bezala konpontzeko eman beharreko aginduak emango lizkioke zuzendari fakultatiboak kontratistari. Agindu horiek betetzeko epe bat izango luke kontratistak, eta epe horretan obraren kontserbazioaren arduradun izaten jarraituko luke, berme epea luzatzeagatik inolako zenbatekorik jasotzeko eskubiderik gabe.

Hala ere, iraupenak amaiera praktikorik ez daukan obretan, hala nola, emaitzarik eman ez duten zundaketetan eta prospekzioetan, edo izaeraren ondorioz kontserbazio hutsezko lanak baino gehiago behar dituztenetan, hala nola, dragatzeetan, ez da berme eperik eskatuko.

Harrera partziala egin ahal izango zaie epeka egin daitezkeen eta erabilera publikorako izango diren parteei, kontratuan ezarritakoaren arabera.

Kontratazio organoak, espedientean behar bezala arrazoitutako interes publikoko salbuespenezko arrazoiengatik beti, obraren benetako okupazioa edo erabilera publikorako zerbitzuan ipintzea erabakiz gero, harrera ekintza formala egin barik badago ere, zirkunstantzia horiek egon daudenetik aurrera obraren harrera ekintzaren eragin eta ondorio berberak izango ditu, eta arauz ezarritako termino berberetan.

Kontratazio-organok egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

## **22. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA**

Kontratazio organoak uko egiten badiot deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordeari ere jakinaraziko dio erabaki hori kontratua *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu bada.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, behin-behineko esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiek bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala”.

### **III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

#### **23. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

#### **24. KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA**

30/2007 Legearen 310. Artikuluko 2. atalean aipatzen diren erabakiak, harmonizatutako erregulazioaren mende dauden kontratuen esleipen prozeduretan hartzeko, subentzionatutako kontratuak, II. Eranskineko 17.etik 27. kategoriara arte sailkatuta dauden eta 193.000 euroko edo gehiagokoak diren zerbitzu kontratuak, eta hastapen-gastuen aurrekontua 500.000 eurokoa eta iraupen epea bost urte baino gehiagokoa duten zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak barne, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, artikuluko honetan arautzen den kontratazio arloko errekurtsu bereziaren mende egongo dira. 97. artikuluan arautzen den larrialdiko tramite bidezko esleipen prozeduretan ebatzitako ekintzetan ez da errekurtsu hau emango.

Errekurtsu bereziaren mende egon ahal izango dira behin-behineko esleipen akordioak, lehiaketa arautzen duten baldintza agiriak eta prestazioaren ezaugarriak ezartzen dituztenak, eta aurreko prozeduran hartutako tramite ekintzak, betiere azken horiek esleipenean zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzea

eragozten badute edo defentsarik eza edo bidezko eskubideren edo interesen baten konpondu ezinezko galera eragiten badute.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez aparte beste ekintza batzuei eragiten dieten tramitazio akatsak espedientea egitea dagokion organoari edo kontratazio organoari jakinarazi ahal izango diete interesdunek, zuzen dezaten, eta behin-behineko esleipen ekitaldia errekurritzerakoan interesdunek eragiten dieten irregulartasunak alegatu ahal izatearen kalterik gabe.

Errekurtsoa beren bidezko eskubideetan edo interesetan kalteak jasan dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek aurkeztu ahal izango dute, edo errekurtsoarean xedea diren erabakiengatik kaltetuak izan daitezkeenek eta, edozein kasutan, lehiatzaileek.

Autonomia erkidego bakoitzeko arauak ezartzen dutenaren kalterik gabe (eta edozein kasutan, administrazio bidea agortzen duten erabakiak emango dituen organo batek izan beharko du eskumen hori), errekurtso berezia ebazteko eskumendunak izango dira: kontratazio organoa administrazio publiko baten kontratuak badira, edo erakunde kontratatzailea atxikita dagoen saileko, organoko, erakundeko edo organismoko burua edo haren zaintza daukana, horrek ez badauka administrazio publiko izaerarik. Azkeneko kasu horretan, erakunde kontratatzailea administrazio batekin baino gehiagorekin lotuta dagoenean, kontrol edo partaidetza nagusia daukanari dagokion organoa izango da eskumenduna.

Kontratu subentzionatuei dagokienez, eskumena izango du subentzioa eman duen saileko, organoko, erakundeko edo organismoko titularrak, edo subentzioa eman duen erakundea atxikita dagoenekoak, horrek ez badauka administrazio publiko izaerarik. Sektore publikoko subjektu desberdinetako subentzioak dauden kasuetan, zenbateko handieneko subentzioa kontuan hartuta zehaztuko da eskumena eta, zenbateko berdinetan, lehenengo eman dena kontuan hartuta.

Kontrako berariazko zehaztapenetan izan ezik, kontratazio arloko errekurtso berezia ebazteko eskumena kontratatzeke eskumenarekin batera eman dela ulertuko da. Hala ere, kalteen ondoriozko kalte-ordainak ezartzeko ahalmena ezin izango da eskuordetu, eta horren gainean, edozein kasutan, organo eskuordetzaileak ebatzi beharko du. Eragin horietarako, kalte-ordain bat onartzea bidezkotzat joz gero, espedientea organo eskuordetzaileari igorriko zaio, eta hark, aurretiaz eta berariaz eskumenak bereganatu beharrik gabe, dagokion errekurtsoarean gainean ebatziko du.

Kontratazio arloan errekurtso berezia ezartzeko epea hamar lanegunekoa izango da, aurkaratutako ekintza jakinarazten edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera zenbatuta. Errekurritutako ekintza kontratuaren behin-behineko esleipena bada, epea zenbatuko da ekintza hori egunkari ofizial baten edo kontratazio organoaren kontratatzailearen eskakizunetan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, 135.4 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Errekurtsu idazkia kontratazio organoaren erregistroan aurkeztu beharko da, edo errekurtsoarean gainean ebazteko eskumena daukan organoaren erregistroan. Idatzi horretako akatsak, hala badagokio, hiru laneguneko epean zuzendu beharko dira.

Kontratuaren esleipen prozedura 96. artikuluan aurreikusitako premiazko bidetik tramitatzen bada, errekurtsua aurkezteko epea zazpi lanegunekoa izango da, eta akatsak konpontzekoa bi lanegunekoa.

Errekurritutako ekintza behin-behineko esleipena bada, kontratazio espedientearen tramitazioa bertan behera geratuko da errekurtsua berariaz ebatzen den arte, eta, beraz, ezin izango da behin betiko esleipenik egin ez kontratua egin. Hala ere, errekurtsua enpresaburu batzuek, kopuru mugarik gabe, parte har dezaketen esparru akordio baten behin-behineko esleipen ekintza baten kontra ezarri bada, ebazpena emateko eskumena daukan organoak bertan behera geratzea altxatu ahal izango du errekurtsua aurkeztu denetik bost lanegun igaro eta gero.

Errekurtsu bat aurkezten bada, horren berri emango zaie gainerako interesdunei, eta bost laneguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Era berean, espedientea tramitatu duen erakunde, organo edo zerbitzuari espedientea eskatuko zaio, eta hurrengo bi lanegunen barruan igorri beharko du dagokion txosten eta guzti. Lehiatzaileak, edozein kasutan, interesdunak izango dira errekurtsoen prozeduran.

Interesdunen alegazioak jaso ostean, edo alegazioak aurkezteko epea igaro ostean, eskumendun organoak hurrengo bost lanegunen barruan eman beharko du errekurtsuaren gaineko ebazpena, eta ebazpenaren berri interesdun guztiei eman beharko die. Edozein kasutan, errekurtsua jarri zenetik hogeitau lanegun igaro badira eta ez bada ebazpenaren berri eman, interesdunak ez onartuzat jo ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko eraginetarako, berariazko ebazpena emateko betebeharraren kalterik gabe eta, hala badagokio, berariazko ebazpena ematen den bitartean, 7. atalean ezarritako bertan behera geratzea altxatu gabe.

Errekurtsuaren ebazpenak errekurtsua edo haren parte bat baietsiko ditu, edo formulatutako asmoak ezetsiko ditu, edo ez onartuzat adieraziko ditu, eta arrazoituta erabakiko ditu aurkeztutako kontu guztiak. Edozein kasutan, ebazpena bat etorriko da eskabidearekin eta, onartuz gero, esleipen prozeduran hartutako legez kanpoko erabakien deuseztapenaren gainean ebatziko du, lehiaketa iragarkian, gonbit iragarkian, baldintza-agirietan, kontratua edo lehiaketarekin edo esleipenarekin zerikusia daukan beste edozein dokumentu arautzeko baldintzetan jasotako ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzario baztertzailak ezabatzea barne hartuta, baita ekintzen atzeraeraginaren gainean edo prozedurako arau-haustearen ondorioz kalteak jaso dituzten pertsonen kalte-ordaina ematearen gainean ere.

Errekurtsuaren ebazpenean erabakiko balitz kontratua beste lehiatzaile bati esleitzea, azkeneko horri hamar laneguneko epea emango zaio 135.4 artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa betetzeko.

Errekurtsuaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumenei buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

## **25. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren



menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

Bermeon, 2011ko ekainaren 21ean

<b>LAP-13 KONTROL PROZEDUREA</b> <b>ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOA</b>
---

### I ERANSKINA

<b>BANAKETA KONTROLA</b>			
<b>LANPOSTUA</b>	<b>IZENA</b>	<b>DATEA</b>	<b>SINADUREA</b>

<b>Arduradunak</b>	<b>Datea</b>	<b>sinadurea</b>
<b>Noiz egina:</b>		
<b>Onartua:</b>		

# PREBENTZINOA BERMATZEKO PROZEDUREI BURUZKO ESKULIBURUA

## LANEKO ARRISKUEN PREBENTZINOA KUDEATZEKO SISTEMEA (LAPKS)

### ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOA

#### **LAP 13**

### AURKIBIDEA

1. HELBURUA.....	4
2. HEDADUREA.....	4
3. DEFINIZIOAK.....	4
4. METODOLOGIA	
4.1.    Bete beharreko segurtasun eta osasun baldintzak.....	5
4.2.    Kontratuaren emakidarako eskatu daitekeen baldintzen berrikuspena.....	7

4.3.	Kontraturiko enpresako beharginen baldintzak.....	7
4.4.	Segurtasun kontrolak betearazpenean.....	8
4.5.	Kontratistak baloratzea.....	9
5.	KOORDINAZIO BITARTEKOEK EGIN BEHARREKO JARDUERAK	
5.1.	Enpresa jardueretako koordinazioaren ardura duten pertsonen funtzioak eta ahalmenak.....	11
6.	ERAIKUNTZA OBRETAN 171/2004 ERREGE DEKRETUA APLIKETEA....	12
7.	ERREFERENTZIAK.....	12
8.	ERANSKINAK.....	12

## 1. HELBURUA

Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemak ezarritako helburuak betetzeko, prozedura honen helburua BERMEOKO UDALAK kanpoko enpresei kontraturiko obren edota zerbitzuen kontrola ahalik eta onena egiteko jarduera metodologia zehaztea da, beharreko arauak eta jarraibideak momenturo bete daitezen eta, horrela, beharginen eta instalazioen segurtasuna eta kontratatutako beharginena bermatu dezaten.

## 2. HEDADUREA

Prozedura hau Bermeoko Udaleko Zerbitzu eta Urigintza sailek bete behar dute, euren dagokielako obra eta zerbitzu denen tramitazioa eta esleipena, bai administrazio-kontratazio fasean bai esleitutako beharren eta zerbitzuen garapenean.

## 3. DEFINIZIOAK

**Bermeoko Udala / Kontratatzailea:** Beste kontrata edo azpikontrata batzuekin zerbitzu-obrak kontratatzen duen enpresa, beraren jarduerari dagozkion eta beraren lantokian egitekoak diren zerbitzu-obrak, hain zuzen ere. (adib.: ekipamenduak, makinak, eraikinak, bideak, etab., egitea, mantentzea, konpontzea, zaintzea, abiaraztea, garbitzea, etab., horrek denak berriak izan zein eraldatuak izan, baita era denetako obrak egitea be), gure kasuan Bermeoko Udala.

**Kontrata:** Kontratupean eta dena delako beharra edota zerbitzua egiteko (instalazioa, obren exekuzioa, berrikusketa, kontserbazioa, mantentzea, muntaketa, etab.) esleipenaren espedientea tramitatu ostean beharrok egiteko agintzen jakon pertsona fisikoa edo juridikoa. Pertsona hori, halaber, enpresa den ezkerro, ezarritako irizpideen arabera homologatu gisa izendatuta egon behar da, edo ez.

**Zuzendaritza teknikoa:** Udalak izendaturiko teknikari eskumendunak, eta euren zeregina obraren edota zerbitzuaren zuzendaritza, enpresa jardueren arteko koordinazioa eta exekuzioaren kontrola izango dira.

**Kontrataturiko enpresako segurtasun eta osasun arduraduna:** Kontrataturiko enpresako pertsona, enpresa esleipendunak garatutako beharretarako segurtasun eta osasun arloko ordezkari izendatutakoa.

**Koordinazio bitartekoak:** Kontratekin enpresa jardueren koordinazioaren ardura edukiko duen edo duten pertsonaren edo pertsonen izendapena, gutxienez erdi mailako heziketa eduki behar dute.

**Prebentzio baliabideen presentzia:** Arrisku eta arriskugarritasun bereziko balizko batzuetan eta egoera jakinetan segurtasuna eta osasuna bermatzeko enpresaburuak dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak. Gutxieneko prestakuntza oinarrizko mailakoa izan behar da.

#### **4. METODOLOGIA**

Atal honetan jarduera prozedura ezartzen da, bai kanpoko enpresa bat kontratatuko faserako bai agindutako beharrak egiten duen kontrolerako.

##### **Bete beharreko segurtasun eta osasun baldintzak:**

Laneko Arriskuen Prebentziorako Legeko 24. artikulua xedatzen duen legeaz, enpresaburu nagusiak beraren jarduerari dagokion eta beraren beharlekuan egiten diren obretako edota zerbitzuetako enpresa kontratistek eta azpi-kontratistek prebentzio arautegia betetzen dutela zaintzeko betebeharra dauka.

Baldintza Teknikoen agirian jasota egongo da segurtasunari eta osasunari buruzko baldintza zehatzak prozedura honetan adierazitakoak izango direla, eta obrak edota zerbitzuak esleituko zaion enpresak zein BERMEOKO UDALAK berak bete beharko dituzte.

Enpresa jardueren koordinazioan enpresa nagusiak dituzten betebeharrak eta obligazioak, gure kasuan BERMEOKO UDALAK dituztenak:

- ❖ Aurreikusitako neurriak betetzea, enpresa lehiakideei dagokionez.
- ❖ Enpresa kontratistek LAPko legeria betetzen dutela zaintzea.
- ❖ Enpresa kontratistek eta azpi-kontratistek kontratatutako obretako eta zerbitzuetako arriskuen ebaluazioa eta prebentzio jardueraren plangintza egin dutela egiaztatzeke exijitzea.
- ❖ Dagokien beharginek prestakuntza eta informazioa badutela egiaztatzeke exijitzea.
- ❖ Enpresa kontratistak dagozkion egiaztagiria eskatu behar dizkio azpikontratari, gero enpresaburu nagusiari emateko, hain zuzen ere.
- ❖ Koordinazio bitartekoak ezartzeko ekimena.
- ❖ Kontratistek eta azpi-kontratistek behar diren koordinazio bitarteko guztiak ezarri dituztela egiaztatzea.
- ❖ Prebentzio delegatuei edo beharginen ordezkariari obra- edo zerbitzu-prestazioko hitzarmenari edo kontratuari buruzko informazioa ematea.

- ❖ Aukeratutako koordinazio bitartekoei buruzko informazioa ematea beharginei.
- ❖ Izendatutako baliabideak edo pertsonak identifikatzeko erraztasunak ematea beharginei.
- ❖ Prebentzio delegatuei edo, bestela, beharginen ordezkariari kontsultak egitea laneko osasunean eragina duten enpresen parte hartzearen ondoriozko laneko antolakuntzari buruz.

**A) Enpresa nagusiko, hau da, BERMEOKO UDALeko enpresaburu titularrak beraren lantokian jarduerak garatzen dituzten enpresaburuei eman behar zaizkien informazioa (ikusi B eranskina):**

- Beharlekuan dauden arriskuei buruzko informazio eta jarraibide egokiak, bai enpresako arrisku orokorrei buruzkoak bai beharrak egiten diren leku funtzionaleko arrisku bereziak.
- Horren arriskuei dagokien prebentzio eta babes neurriak.
- Ezarri beharreko larrialdi neurriak.
- Ezarritako lan prozeduraren arabera eginkizunak egiteko betebeharra edo derrigortasuna.
- Eginkizuna egiteko laneko baimena edo eskumena lortzeko derrigortasunaren definizio zehatza.
- Kontratentzako arau orokorrak.

**B) Enpresa nagusiak, BERMEOKO UDALak, kontrata betetzen duen enpresari buruz jaso behar duen informazioa:**

- Kontratak egin beharreko jarduerekin lotutako arriskuen ebaluazioa.
- Prebentzio jardunaren planifikazioa, zaintzeko eta kontrolerako.
- Enpresa nagusiko beharginek horren arriskuen aurrean hartu beharreko prebentzio eta babes neurriak.
- Kontratako beharginen zerrenda, uneoro eguneratuta, beharginon laneko arriskuen prebentzioko prestaketa-egiaztagiriak eta egin behar dituzten lanekin bat datorren prestakuntza.

**C) Enpresa nagusiak (BERMEOKO UDALA) eta kontratak elkarrekin egin beharreko jarduna:**

- Inguruko berezko arriskueta egin beharreko zereginen eragina eta balizko oihartzuna aztertzea, baita, horrela bajagoko, neurriak elkarrekin prestatzeko beharrezana ere.
- Ezarritako prebentzio-babes neurriak betetzen direla zaintzeko eta kontrolatzeko bideak ipintzea; horretarako, hizketakide prestatuak izendatu eta batzar ohikoetarako programa bat eta batzar ezohikoak deitzeko bide arinak ezarri behar dira.

**4.2. Kontratua emateko eskatu daitezkeen baldintzen berrikuspena.**

Enpresa kontratistek euren eskaintzak aurkeztu ostean, horrek betetzeko berrikuspena egingo da, eskaintzearen eskakizunean ezarritako zehaztasunekin (prezioari, epeei, segurtasun baldintzei... dagokionean).

Industria segurtasuneko arautegi zehatzen menpe dauden instalazioak edo ekipamenduak instalatzeko, mantentzeko, berrikusteko eta ikuskatzeko beharrak egiteko lege baimen bat behar baldin bada, enpresa kontratistek aurkeztu egin beharko dute baimen hori.

Obretako edota zerbitzuetako LAP araudia betetzeko enpresaburu nagusiak, hau da, BERMEOKO UDALAK, daukan obligazioa indarreko legeriak ezartzen duen figura hauen bidez egingo da:

#### ❖ **Enpresa jardueren eta prebentzio baliabideen koordinazio bitartekoak.**

Obligazio hori gauzatzeko aurreko puntuan (4.1.B) idatzitako neurriak eskatuko jakez kontratei.

Bestalde, Barruko Prebentzio Zerbitzuak, dagokion sailak aurretiaz jakinda, kontratazio prozesua behar den moduan betetzen dela ikuskatuko du aldiro, prebentzioa horretan prozesuetan sartzen laguntzeko edo osatzeko.

### **4.3. Kontraturiko enpresako beharginen baldintzak.**

Kontratatutako enpresak Bermeoko Udalean lan egingo duten langileen zerrenda aurkeztu beharko du.

Zerrenda horretan, era berean, enpresa kontratistan segurtasuneko arduradun izendaturikoa nor den be jakinarazi beharko da, kontratuan ezarritakoari jarraiki.

Zerrenda hori beharra hasi baino arinago egon beharko da Zuzendaritza Teknikoaren esku.

Baldintza hori betetzen ez bada, ezarritako koordinazio bitartekoek txostena egin ostean, Zuzendaritza Teknikoak hartzeko baimenduta dagoen neurriak hartu ahal izango dute (lanak geldiaraztea, beharginak ez onartzea, etab.), dagokion sailari berri emanda, kontratuan ezarritako zigor-neurriak hartzeko, hain zuzen ere.

### **4.4. Segurtasun kontrolak betearazpenean**

Kontratek egindako lanak behar diren moduan egin daitezzen, horrek lanak Segurtasuneko eta Osasuneko Arau Orokorrak kontuan hartuta egin beharko dira, baita kontratari kontratua sinatzerakoan emaniko beste jarraibide batzuk ere.

Lanak hasi ostean, obraren edota zerbitzuaren zuzendaritza teknikoa jakinaren gainean dagoela, enpresa jardueren koordinazio bitartekoek edota prebentzio baliabideek, egin beharreko lanerako, ondoen ikusten duten jarraipena egingo dute (egunerokoa, txanda bakoitzeko bat, asterokoa, etab.).

Irregularitasunik antzeman ezker, A Eranskineko Ikuskapen Orrian apuntatuko dira, eta Zuzendaritza Teknikoari kasuaren arabera dagozkion neurriak hartzeko

proposatuko zaio, horren irregulartasunen eragilea edo jatorria kontratatzea izan delako. Eta horren artean, kideen segurtasunik ezezko ekintzak egon daitezke sartuta.

Lanak egiten dabiltzan bitartean, enpresa jardueren koordinazio bitartekoek edota prebentzio baliabideek, arrisku larriko eta berehalako kasuen aurrean, lanak geldiarazteko edo kontratatutako enpresako beharginak kentzeko proposatu daiteke Zuzendaritza Teknikoari.

Agindutako lanak amaitu ostean, enpresa jardueren koordinazio bitartekoek baldintzak bete diren jakiteko azterketa egingo dute, baita segurtasun eta osasun baldintzak bete diren jakiteko ere, eta Zuzendaritza Teknikoari antzemandako irregulartasunen berri emango dizkie, etorkizunean obra edota zerbitzu kontratu berriak esleitzerakoan kontuan hartu daitezzen.

Laneko Arriskuen Prebentzioko Legearekin bat etorrira, legeko 15. artikuluan jasotzen diren prebentzio-ekintzaren printzipioak bete beharko dira obra edo zerbitzua gauzatzekoan, hau da:

- Obra ordenatuta eta garbi edukitzea.
- Lanpostuen eta laneko eremuen kokalekuak aukeratzea, bertara sartzeko baldintzak kontuan hartuta, eta desplazamendu edo zirkulazio bideak edo eremuak zehaztea.
- Materialak manipulatzeko eta laguntzarako bitartekoak erabiltzea.
- Obra gauzatzeko behar diren instalazioak eta gailuak mantentzea, zerbitzuan jarri aurreko eta aldiroko kontrolak egitea, beharginen segurtasunari eta osasunari eragin ditzakeen akatsak zuzentzeko, hain zuzen ere.
- Materialak biltzeko eta gordetzeko lekuak mugatzea eta egokitzea, batez ere material edo substantzia arriskutsuak badira.
- Erabilitako material arriskutsuak batzea.
- Zaborrak eta obra-hondakinak biltzea eta deuseztatzea edo ateratzea.
- Lanei edo Laneko faseei dedikatu beharreko benetako lan-denbora obraren bilakaeraren arabera egokitzea.
- Kontratisten, azpi-kontratisten eta behargin autonomoen arteko lankidetzak.
- Obraren edo obraren inguruetan egiten diren beste lanekiko edo jardueretikiko elkarrekintzak eta bateraezintasunak.

#### **4.5. Kontratatutako baloratzea**

Instalazioetan lan egin eta prozedura honetan ezarritako baldintzak eta beste sistema batzuetatik eratorritakoak (Kalitatea, Ingurumena...) onartu ez eze, eten barik betetzen dituztela egiaztatzen duten enpresak baloratuko dira, hau da, horren guztiaren inguruan kontrako txostenik ez duten enpresak.

Lanak esleitzeko irispideetan ondoren zerrendatutakoak betetzeko obligazioa baloratuko zaie kontratistei edota azpikontratistei:

- Laneko Arriskuen Prebentzioko Legeko 15. artikuluan jasotzen diren prebentzio-ekintzen printzipioak ezartzea, batez ere printzipio orokorreki buruzko atalean zehaztutako zereginak edo jarduerak gauzatzekoan.

- Prebentzio jardueraren plangintzan ezarritakoa betetzea eta betearaztea beharginei.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko araudia betetzea, eta, horrela bazaio, enpresa jardueren koordinazioaren gaineko obligazioak kontuan hartzea.
- Obran, segurtasunari eta osasunari dagokionez hartu behar diren neurriei buruzko informazioa eta jarraibide aproposak ematea behargin autonomoei.
- Obra gauzatzen den bitartean segurtasun eta osasun koordinatzailearen esanak eta jarraibideak betetzea edo, bestela, zuzendaritza teknikoarenak.

Kontratastak enpresa jardueren plangintzan ezarritako prebentzio neurriak ondo betetzeko erantzuleak izango dira, zuzen-zuzenean eurenak diren betebeharrei dagokionean. Horretaz gainera, plangintzan aurreikusitako neurriak ez betetzeagatik sortutako ondorioen erantzule subsidiarioak izango dira.

Koordinazio bitartekoen, zuzendaritza teknikoaren eta BERMEOKO UDALAREN erantzukizunetik ez dituzte kontratastak euren erantzukizunetatik salbuetsiko.

## **5. ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIO BITARTEKOEK EGIN BEHARREKO JARDUERAK**

Enpresaburu lehiatzaile guztien ardura den lankidetzeta-betekizuna laneko arriskuen prebentziorako koordinazio bitartekorik egokienak eta ordenatuenak ezarrita beteko da.

Indarreko legeriaren arabera, honetako baldintzetako bi edo gehiago elkartzen direnean lehentasunezko koordinazio bitarteko moduan koordinazioaz arduratuko den pertsona bat edo gehiago izendatzea aurreikusten da.

- ❖ Lantokian egingo diren jarduerak edo prozesuak arriskutsutzat edo arrisku berezikotzat hartzen direnean.
- ❖ Lantokian gauzatzen diren jardueren elkarreraginen kontrolean zailtasunak daudenean eta, horrek, arrisku larriak edo oso larriak eragin daitezkeenean.
- ❖ Prebentzioari dagokionez, lantokian euren artean bateraezinak diren jarduerak egitea eragozteko zailtasun bereziak daudenean.
- ❖ Parte hartzen duten enpresen eta beharginen kopurua, egiten diren jarduerak motak eta lantokiaren ezaugarriak direla-eta prebentzio jardueren koordinaziorako zailtasun bereziak daudenean.

Lantokiko zuzendaritza nagusiak prebentzio jardueren koordinaziorako pertsona edo pertsonak **izendatuko dute**, eta honetara mugatuko da:

- ❖ Izendatutako behargin bat edo batzuk
- ❖ Udalaren prebentzio zerbitzuko kide bat edo batzuk.
- ❖ Udalak kanpoan hitzartutako prebentzio zerbitzuko kide bat edo batzuk.
- ❖ Aukeratutako antolakuntza modalitateko kideak ez diren udal langile bat edo gehiago. Horrela eta guztiz ere, behar diren jakintzak, kalifikazioa eta esperientzia eduki beharko dute.
- ❖ Egitura hierarkikoan goiko lekuetan dagoen beste edozein udal langile, enpresa jarduerak koordinatzeko gauza bada.



- ❖ Behar diren eskumenak, jakintzak eta kalifikazioa edukita prebentzio jardueretan diharduen pertsona edo pertsonak.

Ezinbestekoa da koordinazioaren arduradun izendatutako pertsonen eta enpresaburu parte hartzaileen prebentzio baliabideen arteko lankidetzak. Prebentzio baliabideetako pertsona edo pertsonak, LAPLko 32. bis artikuluan aurreikusitako legez, enpresa jardueren koordinatzaile ere izan daitekeela aurreikusten da.

### **5.1. Enpresa jardueretako koordinazioaren ardura duten pertsonen funtzioak eta ahalmenak.**

Bagilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuko 14. artikulua koordinazio bitartekoei dagokien funtzioak eta ahalmenak ezartzen ditu

Honek funtzioak edukiko dituzte:

- ❖ Lehenago aitatu diren helburuak betetzeko bideak erraztea.
- ❖ Lantokian diharduen enpresek gura zein gura ez trukatu behar dituzten informazioen bidea izatea.
- ❖ Lantokiko enpresaburu titularrak agindutako beste edozein zeregin.

Honek ahalmenak edukiko dituzte:

- ❖ Lantokian diharduen enpresek trukatu behar dituzten informazioen berri edukitzea.
- ❖ Euren funtzioak betetzeko beharrezkotzat jotzen diren prebentzio-dokumentuen berri edukitzea.
- ❖ Lantokiko edozein lekutara joatea.
- ❖ Elkartutako enpresei behar diren jarraibideak ematea, euren zereginak betetzeko dituzten exijentziak eskatutakoak.
- ❖ Lantokian dauden arriskuen prebentziorako behar diren neurriak hartzea proposatzea bertan diharduen enpresei.

Beste aurreikuspen garrantzitsu bi:

- ❖ Euren funtzioak betetzeko behar den denbora guztian lantokian bertan egotea.
- ❖ Koordinazioaren ardura duten pertsonak dagokion prebentzio-prestakuntza eduki beharko dute, gutxienez erdi mailako zereginei dagokiona.

## **6. ERAIKUNTZA OBRETAN 171/2004 ERREGE DEKRETUA APLIKETEA**

Obrak euren araudi espezifikoaren eta euren koordinazio bitarteko propioen arabera arautuko dira, gaur egun indarrean dauden betebeharrak aldatu barik, baina araudi espezifiko hori aberastu egingo da 171/2004 Errege Dekretuan enpresa jardueri buruz ezarritakoari esker, obran diharduen enpresaburuek trukatu behar duten prebentzio informazioaren bidez eta obretan parte hartzen dutenek hartu behar dituzten neurriak argituta.

Eraikuntzaren sektorean, koordinazio bitartekoak, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan eta LAPLko hamalagarren xedapen gehigarrian (eraikuntza obretako prebentzio baliabideen presentziari buruzkoa) ezarritakoak izango dira.

## **7. ERREFERENTZIAK**

- ✓ LAPko arau esparruaren aldaketari buruzko 54/2003 Legeak aldatu zuen Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko zemendiaren 8ko 31/1995 Legea.
- ✓ Prebentzio zerbitzuen arautegia.
- ✓ Laneko Arriskuen Prebentzioaren Kudeaketarako eskuliburua.
- ✓ Eraikuntza obretan segurtasunerako eta osasunerako gutxienerako xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/97 Errege Dekretua.
- ✓ Enpresa jardueren koordinaziorako arloan laneko arriskuen prebentziorako zemendiaren 8ko 31/1995 Legeko 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua.

## **8. ERANSKINAK**

A eranskina: Ikuskapen orria.

B eranskina: Kontratei emaniko informazioaren hartu-agiria.

C eranskina: Beharren kontrataziorako auto-ebaluazio galdetegia.

D eranskina: Kontratei beharrezko dokumentazioa eskatzeko agiria.

**KONTROLERAKO PROZEDUREA**  
**LAP - 13**  
**ENPRESA JARDUEREN**  
**KOORDINAZINOA**

**KONTRATATUTAKO ENPRESEI ESKATU**  
**DAKIKIEZAN SEGURTASUN BALDINTZAK**

TEKNIKOAK: "LANEKO SEGURTASUNERAKO ETA OSASUNERAKO ARAU OROKORRAK"

BEHARGINAK: \* ARRISKUEN EBALUAZINOA

- KUALIFIKAZINOA
- PRESTAKUNTZEA / INFORMAZINOA
- PREBENTZINO EKINTZEAREN PLANA

**KONTRATAUTAKO ENPRESEAK ENPRESAKO**  
**INDARREKO PREBENTZINO PROZEDURA**  
**GUZTIAK ONARTU ETA BETE BEHAR DAUZ**

**SEGURTASUNAREN KONTROLA EXEKUZINOAN**

KONTRATEA: \* ARAUAK BETETEA

\* SEGURTASUN ARDURADUNA IZENTETEA

BERMEOKO UDALA: \* KOORDINAZINO BITARTEKOAK

\* PREBENTZINO BALIABIDEAK

**KONTRATISTAK BALORETEA**

ARRISKUEN EBALUAZINOA  
ZENBATGARREN IKUSKAPENA:

**LAP.- 13 (A eranskina)**  
**IKUSKAPEN ORRIA**  
31/1995 Legea

BERMEOKO UDALA  
ZENBATGARREN IKUSKAPENA: 000  
DATEA:

Ikuskapen eremua:..... Ikuskapen taldeko burua:..... Aurreko ikuskapen Zk :.....--Data : - -

ID zk .	ANTZEMANDAKO IRREGULARTASUNA EDO ARRISKUA	N R	PROPOSATUTAKO EKINTZAK	ARDURADUNA		Ekin tza	Aurreikusitako data		Ebatzita
				EXEKUZIN OA	JARRAIPEN A		Hasier a	Amaie ra	BAI/EZ

Fecha: \_\_\_\_\_ Código: \_\_\_\_\_  
 Empresa Contratada \_\_\_\_\_  
 Teléfono de contacto: \_\_\_\_\_ Periodo de contrato: desde \_\_\_\_\_ a \_\_\_\_\_  
 Trabajo contratado: \_\_\_\_\_ Núm. pedido: \_\_\_\_\_  
 Unidades Funcionales afectadas: \_\_\_\_\_

(1) Personal que realizará el trabajo:

NOMBRE	CUALIFICACIÓN
_____	_____
_____	_____
_____	_____
_____	_____

ESPECIFICACIÓN DE LOS RIESGOS Y MEDIOS DE PREVENCIÓN/PROTECCIÓN

RIESGOS GENERALES EN LA ZONA DE TRABAJO	MEDIDAS PREVENTIVAS	
	COLECTIVAS	INDIVIDUALES

NORMATIVA ESPECÍFICA A EMPLEAR: \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_

DOCUMENTACIÓN QUE SE ENTREGA: \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_

Firma Responsable Unidad Funcional afectada

Fecha:





A rellenar conjuntamente por la empresa principal y la empresa contratada:

Pag. 2/2

ACTIVIDADES CONTRATADAS	RIESGOS ASOCIADOS	MEDIOS PREVENCIÓN/PROTECCIÓN

Enterado de los riesgos generales de la empresa contratista y de los riesgos específicos de la actividad contratada, de los equipos a emplear y de la normativa a aplicar, me comprometo a informar de ello a los trabajadores indicados en el epígrafe (1).

Firma Responsable empresa contratada:

Fecha:

---

OBSERVACIONES:

---

#### CLÁUSULAS

Será motivo de rescisión del contrato:

1. El no cumplimiento por parte del Responsable de Contrata de informar a los trabajadores indicados en el epígrafe (1) sobre lo especificado en este documento.
2. El no cumplimiento por parte del Responsable de Contrata de comunicar a la empresa principal de los cambios, incorporaciones o cesiones del personal designado para realizar el trabajo e indicado en el epígrafe (1).
3. El no cumplimiento por parte de la empresa contratada de informar a la principal sobre las generación de nuevos riesgos debidos a modificaciones en las condiciones de trabajo o en el Centro de trabajo.





**CUESTIONARIO DE AUTOEVALUACIÓN:****Coordinación interempresarial. Contratación de trabajos**

REQUISITOS	SÍ	NO	JUSTIFICACIONES
1 La empresa dispone de un plan de trabajo para coordinar las actividades preventivas con el resto de las empresas que desarrollan actividades en su centro de trabajo.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	La empresa principal deberá coordinar sus actividades preventivas con el resto de empresas que trabajen en su centro de trabajo decidiendo sobre las medidas de prevención y medios de protección a utilizar, especificando cuáles aporta cada una (art. 24 LPRL).
2 El empresario suministra información, sobre los riesgos generales de la empresa, los riesgos específicos del área funcional donde se desarrollan las tareas y sobre los medios de prevención/protección a tomar, a las contratadas o trabajadores autónomos que realizan sus actividades en su centro de trabajo.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	La empresa principal deberá suministrar obligatoriamente información e instrucciones adecuadas acerca de los riesgos existentes y las medidas de prevención y protección a adoptar (art. 24 LPRL).
3 La empresa principal recaba de la empresa que ejecuta la contrata información sobre la evaluación de riesgos y las consiguientes medidas a adoptar para su control, en relación con la actividad a realizar por la contrata.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	La empresa que ejecuta la contrata deberá facilitar la evaluación de riesgos y el plan de prevención para su control, para que la empresa principal pueda adoptar así medidas de prevención/protección para su propio personal (art.24 LPRL).
4 Existe un procedimiento de contratación de empresas para los trabajos a realizar con atención a los aspectos relativos a la seguridad y salud laboral.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	La empresa debería establecer un procedimiento de contratación asegurándose así de que las organizaciones que trabajen con ella lo hagan con las debidas medidas de seguridad y calidad.
5 En caso de empresas de la misma actividad, la empresa vigila el cumplimiento, por parte de las contratadas y los trabajadores autónomos, de la legislación y medidas de prevención en materia de seguridad y salud de los trabajadores.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	La empresa principal supervisará el cumplimiento de las medidas de prevención y protección cuando se trate de empresas de la misma actividad (art. 24 LPRL).
6 Los trabajadores autónomos reciben el mismo nivel de protección que los fijos en plantilla.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	El personal externo a la empresa gozará de las mismas garantías de protección que el propio. (art. 28 LPRL)
7 La empresa ofrece el servicio de vigilancia de la salud a los trabajadores de las empresas de trabajo temporal en las mismas condiciones que al resto de los trabajadores.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Los trabajadores pertenecientes a una ETT tendrán derecho a una vigilancia periódica de su salud (art. 28 LPRL y art. 5 RD 216/1999).
8 La empresa realiza un seguimiento de la calidad / seguridad de las empresas contratadas.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	La empresa debería elaborar un listado de posibles contratadas realizando una evaluación de las mismas basándose en criterios económicos, de calidad y de seguridad. Esa valoración deberá ser revisada teniendo en cuenta experiencias de trabajos anteriores.
9 La empresa principal establece cláusulas de salvaguarda en los contratos.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	La empresa debería introducir cláusulas de salvaguarda en el contrato para asegurarse así del cumplimiento de las medidas de prevención y protección.
10 En empresas de la misma actividad la empresa principal revisa las evaluaciones de riesgos realizadas por las contratadas y subcontratadas.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Aunque la obligación de realizar la evaluación de riesgos es de la empresa contratista, la empresa principal debe revisar esa evaluación, asegurándose de que el trabajo va a ser realizado en las debidas condiciones de seguridad (art. 24 LPRL).
11 Comprueba la acreditación de la cualificación de los trabajadores de las empresas contratadas.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	La empresa debería comprobar la acreditación de los trabajadores que van a llevar a cabo su labor en el centro de trabajo.
12 Dispone de los certificados de conformidad de los equipos de trabajo utilizados por las empresas contratistas y subcontratistas.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	La empresa debería velar porque los equipos de trabajo utilizados por las empresas contratadas no supongan una fuente de peligro para los trabajadores.
13 Tanto la empresa principal como la empresa contratista disponen de un responsable de seguridad y salud laboral.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Ambas empresas deberán disponer de un responsable que vele por la seguridad del personal de la empresa contratante y de la empresa principal, así como por las instalaciones, actuando en coordinación (cap. IV LPRL).

**RESULTADO DE LA VALORACIÓN**

MUY DEFICIENTE .....  DEFICIENTE .....  MEJORABLE .....  CORRECTA .....



## II. ERANSKINA

### DATU PERTSONALAK ETA INFORMAZINO KONFIDENTZIALA BABESTEARI BURUZKO KLAUSULA

#### ..... ENPRESEAK AITORTZEN DAU:

Kontratu honen xede diran zerbitzuak emoteko kontratuzko hartu-emonari jarraiki, BERMEOKO UDALarentzat ..... Obrak/ zerbitzua/ lanak egingo dauzala.

Horreek obrak/zerbitzuak/lana egin/emoteko, BERMEOKO UDALAK, .....enpreseari datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategietara sartzeko baimena emon behar badeutsoz, ..... enpreseak datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategiak BERMEOKo UDALaren kontura erabiliko dauzala.

Sarrera hori emoteagaitik, halan behar izatekotan, ezin leitekela ezelan be ulertu lagapen, emote edota Datu Pertsonalen zein Fitxategien transferentziarik dagoanik.

..... enpreseak, udalaren datuez kanpo, kontratuaren xede diran egitekoetarako, jasoten dauzan bestelako datu pertsonalak zein konfidentzialak, Bermeoko Udalaren izenean egingo dauzala, kontratu honen helburua dan proiekturako soilik erabili ahal izango dauzala, udalaren titularidadekoak izango dirala, eta datuen jasoketan Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan eta horren garapenerako araudian ezarritako eginbideak beteko dirala.

Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan ezarritakoagaz bat eginez, 12. artikuluan, jagoken pertsonen eskubideak bermaturik gelditzeko eta datu zein fitxategi horreetara sartzean jarraitu beharreko legediari eutsiz agintzen dan "hirugarrenek egindako tratamenduak idatziz egindako kontratuan arautuko dira" adierazpenean oinarrituta eta datu pertsonalen jasoketan araudiak exijitzen dauzan zehaztasun, informazio, ardura eta arretan oinarrituta eta, era berean konfidentziasunak eskatzen dauzan bermeak kontutan eukita, ..... enpreseak onartzen dauzala hurrengo

#### AITORPENAK

##### LEHENENGOA .- Muga

.....enpreseak, BERMEOKo UDALaren ardurapekoak diran datu pertsonaletara eta fitxategietara helduko da lotzen dauen kontratuzko hartu-emonaren izakera juridikoa eta funtzino ekonomikoak halan eskatzen badau, eta, betibe, kontratautako obra/zerbitzua/lanak hobetzeko beharrezkoa izan ezkeru.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEO UDALAK itxitako datu pertsonalak zein konfidentzialak, bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Horrezaz ganera, ..... enpreseak ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbetako bada be, Bermeoko Udalaren idatzizko baimen barik.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEO UDALAgaz daukan kontratu hau beteteko udalaren izenean eta kontratu honen xede dan helbururako jasotako Datu Pertsonalak eta konfidentzialak bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Jasotako datuok udalaren izenean egiten dauzala informau beharko dau, eta datu-bilketea honako araudiek agindutakoaren arabera egingo da: Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoa, abenduaren 21eko



1720/2007 Errege Dekretua, zezeilaren 25eko 2/2004 Legea eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretua.

Horrezaz ganera, .....enpreseak ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbazinorako bada be, Bermeoko Udalaren idatzizko baimen barik.

#### BIGARRENA .- *Araudia*

.....enpreseak Datu Pertsonaletara eta Fitxategietara egindako sarbidea, Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoaren xedapen zehatzak eta garapen araudi ezargariak arautuko dabe.

.....enpreseak Datu Pertsonalen arautegiak, tratamenduaren arduradunari ezarten deusazan eginbeharrak eta betekizunak eta datu pertsonalen jasoketan kontuan euki beharrekoak bere gain hartzen dauz. Halanda ze, Datu Pertsonalen Babeserako Legeak garatzen dauen berme aginduagaz bat eginez, datuen izakerearen arabera eta ezarten diran tratamenduaren arabera, behar diran neurri teknikoak, antolaketakoak eta behar diran neurriak diseinetako, ezarteko eta gordeteko konpromisoa eta betebeharra daukaz.

#### HIRUGARRENA .- *Ardurea*

Legeak BERMEOko UDALA "arduradun" izentetan dau jagokon administrazioaren zein auzitegiaren aurrean. ....enpreseak, "eragileak", BERMEOko UDALak emondako aginduak beteta, zuzenean edo zeharka Datu Pertsonalen mendekotasunak sortzen dauzan erantzukizun danak bere gain hartzen dauz.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak edota eskumena daukan beste erakunderen batek, erantzukizunaren egozketa edo gatx-kalteakaitiko ordainen erreklamazioa egingo baleutso Bermeoko Udalari, BERMEOko UDALak .....enpreseak aurka jo leike Jurisdikzio Zibil Arruntaren aurrean, jagokozan itzulera eta konpentzazio ekintzak bideratzeko, baita beste edozein egiazko, ahalezko, moralezko zein etorkizuneko gatx-kalteak konpentsetako be eta, bardin, informazio konfidentzialak era desegokian erabiltzen badira.

#### LAUGARRENA .- *Konfidentzialtasuna*

.....enpreseak, sarbidea daukan datu pertsonalen zein eskuratutako informazio konfidentzialen isilpeko izakerea gordeteko eta inori ez zabaltzeko konpromisoa hartzen dau, baita kontratautako obra/zerbitzu/lanetatik kanpo ez erabilteko konpromisoa be. ....enpreseak bere ardurapeko langileek ez dabezala horreek datu pertsonalak zabalduko bermatzen dau, baita modu desegokian ez dabezala erabiliko be.

Konfidentzialtasun eginbehar horrek, BERMEOko UDALaren ardurapean dagozan datu pertsonaletara edo fitxategietara .....enpreseak egindako sarbidea dala-eta, Bermeoko Udalagaz egindako kontratuaren helburua lortzeko honen izenean jasotako bestelako datu pertsonalak dirala-eta, zein eskuratutako informazio edota datu konfidentzialak dirala-eta, sortutako zerbitzu hartu-emonan amaitu ostean be iraungo dau egitez edo eskubidez, itxura, era eta denpora albo batera itxita.

#### BOSGARRENA.- *Ebazpena*

Honeek akordioak muga bako iraupena dauka, baina obra/zerbitzu kontratuen hartu-emonaren iraupenagaz lotuta dago. ....enpreseak, obra/zerbitzua/lanak amaitu



eta gero, zerbitzua beteteko erabili dauen euskarria deuseztatu egingo dau, baita kopiak eta bestelako euskarriak be (informatikoak izan zein ez), beti be, Udalak itzultzeko eskatzen ez badeutso.

SEIGARRENA.-        *Ezarri leitekezan jurisdikzinoa eta legeria*

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa eta lege hori garatzen dauen araudia be ezarri ahal izango dira. Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren ebazpenak be hartuko dira oinarritzat.

Klausula honen interpretazinoak edo ezarpenak sortu leikezan zalantzak, desadostasunak zein bestelako arazoak eta eztabaidak, Gernika-Lumoko Auzitegiaren mende ipiniko dira. Bi aldeek uko egiten deutsee Antolamendu Juridikoaren arabera eskumenak daukiezan beste epaitegiei.

Bermeon, 2011ko .....aren .....an



### III. ERANSKINA

#### Proposamen ekonomikoaren eredia

..... Jaun/Andreak,  
..... Helbidearekin eta .....  
zenbakiduneko NANarekin, nire izenean edo .....  
Helbidea eta ..... IFZ daukan .....  
izeneko enpresaren ordez,

#### AITORTZEN DUT:

- I.- .....  
xedeak daukan kontratuaren lizitazio iragarkiaren berri izan dudala.
- II.- Kontratua arautzen dituen Baldintza Administrazioen eta Teknikoen Orriak ezagutzen dituela, horiek onartzen dituelarik.
- III.- Ordezkatzen dudako enpresak indarrean dagoen araudiak finkatutako baldintza eta irizpide guztiak betetzen dituela.
- IV.- Aipatutako kontratuaren betearazpena .....(zenbakitan/hitzetan) Eurotan, BEZ kanpo, proposatzen dudala. BEZari dagokion zenbatekoa .....€koa ( zenbakitan /hitzetan) izango dala.

Bermeon, 2011ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:



**IV. ERANSKINA**  
**Zinpeko Aitorpenaren Eredua**

Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko NANarekin,  
..... helbidea eta .....IFZ daukan  
.....izeneko enpresaren ordez,

**KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN**  
**DU**

Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 49. Artikuluak ezartzen dituen debekuetatik bat bera ere ez duela.

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2011ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:



**V. ERANSKINA**  
**Lizitazaileek betetzeko inprimakia**

**ENPRESAREN DATUAK**

**1. Enpresa indibiduala**

Izena:

NAN:

Helbidea:

Fax:

Tfnoa:

PK:

Erregistratutako merkataritza- izena:

.....ko Merkataritza Erregistroan

..... datan inskribatuta.

**2. Gizarte-enpresa:**

Izena:

IFZ:

Eratze-data:

.....ko Merkataritza Erregistroan

..... datan inskribatuta.

Helbidea:

Fax:

Tfnoa:

Ondorengo giza-eskiturak:

**IZENA**

1. Aldatzea

2. Handitzea

3. Beste batzuk

**DATA**

...../...../.....

...../...../.....

...../...../.....



### 3. Ahalduna:

Izena:

Ahalordetze-eskritura :

- Data :

- .....ko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.

Bermeon, 2011ko .....ren .....an.

Sinatuta:

NAN:





**VI. ERANSKINA**  
**Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroko edota Bizkaiko Foru**  
**Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroko datuen baliagarritasunaren**  
**Zinpeko Aitorpenaren Eredua**

.....Jaun/Andreak,.....zenbakid  
uneko NANarekin , ..... helbidea eta  
.....IFZ daukan ..... izeneko  
enpresaren ordeiz,

**KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN**  
**DU**

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak edota Bizkaiko Foru Aldundiko Lizitatzailen Erregistroak emandako ziurtagirian jasotzen diren datuen baliagarritasuna eta indarraldia, batez ere, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 49. Artikuluari dagozkionak.

Sinatuta:  
NAN:



## VII. ERANSKINA KAUDIMEN EKONOMIKOA

.....Jaun/Andreak,.....zenbakid  
uneko NANarekin , ..... helbidea eta  
.....IFZ daukan .....izeneko enpresaren ordez,  
..... xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen  
ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

Enpresaren negozioen kopurua azken hiru urtetan ondokoa izan dala:

### 2008. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

### 2009. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

### 2010. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen ekonomikoa frogatuta  
gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2011ko .....ren .....an.

Sinatuta:

NAN:



## VIII. ERANSKINA KAUDIMEN TEKNIKOA

.....Jaun/Andreak,.....zenbakid  
uneko NANarekin , ..... helbidea eta .....IFZ daukan  
.....izeneko enpresaren ordez,  
..... xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen  
ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

1. Azken hiru urtetan empresa honek egindako lanak ondokoak izan direla:
  - 2008. Urtea
  - 2009. Urtea
  - 2010. Urtea
2. Kontratua betetzeko gure esku dauden unitate teknikoak ondokoak direla:
3. Ingurugiroko kudeaketa neurriak ondokoak direla:
4. Enpresaren baliabide pertsonalak ondokoak direla:

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen teknikoa frogatuta gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2011ko .....ren .....an.

Sinatuta:

NAN:



**IX. ERANSKINA:**  
**MINUSBALIADUN LANGILERIARI BURUZKO AITORPENA.**

.....J<sup>a</sup>/A<sup>a</sup>.....NAN zenbakiduna,  
.....zenbakiduneko IFK daukan .....enpresaren ordeztu eta  
izenean,

**Erantzunkizunpean, Adierazten dau:**

1.- Agiri honek aurkezteko dataz, goian aipatutako enpresak ondorengo langile kopuru eta motak daukazala:

- MINUSBALIADUN langileen kopurua, guztira:.....
- Enpresaren plantilakoak diranak eta besteren kontura lan egiten daben lagileen kopurua, autonomoak eta bere kontura lan egiten daben langileak bastertuta, guztira: .....
- Enpresaren plantilako langile guztien artean, MINUSBALIADUN langileek suposatzen daben portzentaia, autonomoak edota bere kontura lan egiten daben langileak bastertuta, guztira: .....

Aitorpen hau kreditatzeko asmoagaz, administrazio honek Enpresa lizitatzailerari eskatzen deustozan agiri guztiak entregatzeko konpromezua hartzen dau.

Bermeon, 2011ko .....aren .....an.

